

JURGI KINTANA GOIRIENA

AZKUE

Bilbotar ezezaguna

Miguel de Unamuno XV. saria
Bilboko Udala



erein

AZKUE
Bilbotar ezezaguna

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Bilboko Udalak antolatu zuen Miguel de Unamuno XV. Saiakera Lehiaketaren 2014ko deialdiaren euskarazko modalitateko saria jaso du.
Liburu hau Bilboko Udalak argitaratua izan da.

Maketazioa:

Itxaropena

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko argazkia:

Azkie 1904. urtean

Autorearen argazkia:

Iker Ugalde

© Jurgi Kintana Goiriena

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9109-048-9

L. G.: SS-1119/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzaila: Itxaropena

Araba kalea, 45

20800 Zarautz

T 943 83 50 08 F 943 13 08 22

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

AZKUE

Bilbotar ezezaguna

Jurgi Kintana Goiriena

AURKIBIDEA

AITZINSOLASA: AZKUE ETA UNAMUNO	11
1. HAURTZAROA LEKEITIO (1864-1878)	19
Azkueren gurasoak: Eusebio eta Karmen	19
Azkue jaiotzen ikusi zuen mundua	21
Lekeitio 1864. urte aldera	29
Azkueren etxeko giroa umetan	30
Azkueren herriko bizipenak	34
Bigarren Gerra Karlista	37
2. GAZTAROKO IKASKETAK BILBO, GASTEIZ ETA SALAMANCA ARTEAN (1878-1888)	41
Batxiler ikasle Bilboko Institutuan (1878-1881)	41
Seminarista Gasteizen (1881-1885)	48
Seminarista Salamancan (1885-1888)	55
3. BILBOKO EUSKARA KATEDRAN KOKATZEN (1888-1894)	63
Euskara katedraren lehiaketa (1888)	63
Katedra Bilbo burgesean (1888)	72
Lekutxo bat esparru katolikoan (1888-1889)	75
<i>Izkindearen</i> lehen pausoak (1889-1891)	80
<i>Izkindearen</i> proiektzioa: Campion, Dodgson eta beste (1891-1893)	85
Euskal nazionalismorako bidea (1893-1894)	93
4. ALDI GORENA BILBON (1894-1901)	99
<i>Vizcaytik Bizkaira</i> zarzuela (1894-1895)	99
Azkue jeltzaleekin (1895)	103
Sotaren Euskalerria elkartean (1895-1896)	110
Dodgsonen “sodomia” eta euskara-fedea auzia (1895)	112
Azkueren heldutasuna euskal esparruan (1895-1896)	115
Euskaldun Biltokia (1896-1898)	119
<i>Euskalzale</i> aldizkariaren sorrera (1897)	121

Arana-Goiriren haserrea eta Broussain ezagutzea (1897-1898)	125
<i>Pasa de chimbos</i> zarzuela: hiri-landalur zatiketak gainditzen (1898)	133
Euforia eta jazarpena (1898-1899)	136
Proiektu berriak mende bueltan (1900-1901)	144
5. AZKUE ETA UNAMUNO AURREZ AURRE (1901)	153
Unamunoren Bilboko hitzaldia	153
Azkueren erantzuna	155
Azkue eta Unamuno utopien bila	160
Azkue eta Unamuno: intelektual bi parez pare	162
Euskal Herria eta Gaztela-Espainia	168
Azken gutuna	172
6. HENDAIATIK NEGURIRA (1901-1903)	175
Hendaiako Kongresua eta Ibaizabalen sorrera (1901-1902)	175
Hiztegiarentzako argitaletxe bila (1902-1903)	181
7. EUROPAKO ALDIA (1904-1909)	191
Lehen hilabeteak Paris, Tours eta Londres artean (1904)	191
Toursen hiztegi gintzan (1904-1906)	194
Bruselako aldia (1906-1907)	207
Koloniako aldia (1907-1909)	212
8. EUSKAL MUSIKAGINTZA BILBON (1909-1914)	225
<i>Ortzuri</i> operaren garaia (1909-1911)	225
Izendegiaren polemika Eleizalderekin (1911-1912)	232
<i>Urlo</i> operaren garaia (1912-1914)	237
9. EUSKAL AKADEMIARANTZ (1914-1918)	245
Gerla Handiaren lehen urteak (1914-1915)	245
Euskara hiritartu: 1916ko hitzaldia	249
Itzaropen garaiak (1917-1918)	262
<i>Euzkadi-Euskalerria</i> polemika (1918)	265
Oñatiko Kongresua eta Euskal Akademiaren sorrera (1918-1919)	270
10. EUSKALTZAINDIAREN LEHEN URTEAK (1919-1923)	277
Akademia gerla arteko testuinguruan	277
Autoritatea finkatu ezinik (1919-1920)	278
Euskaltzainditik azpiegitura lanean (1920-1921)	290

Euskararen batasunaz: sabindarrak, Pidal, Unamuno eta Azkue (1920-1921)	293
Azkue alderdi autonomista bultzatzen (1921)	300
Durangoko Euskal Egungetarik Gernikarantz begira (1921-1922)	303
Gernikako Kongresua (1922)	307
Gernikako Kongresuaren fruituak (1922-1923)	310
Bidaia akademiko eta nostalgikoa Erteuropa legitimistan zehar (1923)	314
11. EUSKALTZAINDIA DIKTADURAPEAN (1923-1930)	321
Primo de Riveraren estatu kolpea (1923)	321
Diktaturak mugatuta (1923-1924)	323
Gorabehera ekonomikoak eta eklesiastikoak (1924-1925)	328
Euskaltzain ordezekoak (1925-1926)	333
Espainiar estatua euskarari bidea irekitzen? (1926-1927)	338
Londrestik espainiar akademiarentz (1927-1928)	344
Bavarian eta Madrilen mirari eske (1928-1929)	345
Azkueren errutinak (1929)	351
Andoaindik Jakara (1929-1930)	353
Ritz hotela, txapela eta gorbata (1930)	359
Erregimen aldaketaren atarian (1930-1931)	363
12. EUSKALTZAINDIA BIGARREN ERREPUBLIKAN (1931-1936)	369
Errepublika: itxaropen eta ezegonkortasun artean (1931-1932)	369
Euskal Unibertsitatearen nahia zalantzen garaian (1932)	375
‘Ixendegijaren’ disgustuak eta amerikar sorpresak (1932-1933)	379
Autonomia itxaropenak etenda (1933-1934)	384
<i>Euskalerrriaren yakintza</i> argitaratzeko lanak eta gastuak (1934)	388
Euskararen alde errepresio garaian (1934-1935)	391
Orixeren <i>Euskaldunak</i> eta Azkueren <i>Euskalerrriaren yakintza</i> (1935)	395
Garai baten amaiera (1935-1936)	403
Omenaldia Lekeition (1936)	407
Udako txangoa (1936)	410
13. GERRA ZIBILA ETA AZKEN URTEAK (1936-1951)	411
Etenik latzena	411
Gerra garaia (1936-1939)	411
Gerra ostea (1939-1951)	414
AMAITZEKO: AZKUE ETA UNAMUNO BERRIRO	417

AITZINSOLASA AZKUE ETA UNAMUNO

Duela 150 urte Euskal Herriko letragizon handi bat jaio zen: Resurreccion Maria Azkue (1864-1951). Liburu honetan bere bizi-ibilbidea aztertzen da. Urte berean sortu zen Miguel de Unamuno idazle ospetsua ere (1864-1936). Azkue-taz aritzean Unamuno aipatzea ez da kointzidentzia kronologiko hutsa. Aitzitik pertsonaia biek, elkarren parean jarrita, abiapuntu interesgarria eskaintzen dute gaia kokatzen hasteko.

Azkue eta Unamuno, esan bezala, urte berean jaio ziren, bi hilabete eskaseko aldearekin. Horrek esan gura du bien bizitzek garai historiko berbera eta adin hertsiki berean zeharkatu zutela. Gainera biak jaio ziren Bizkaian eta bientzat izan zen Bilbo funtsezko erreferentzia gunea. Forugabetzearen garaia eta industrializazioak astindutako euskal gizartea ere biek ezagutu zituzten. Denbora berbera, espazio berbera eta gertaera berberak. Mundu beraren bi lekuko izan ziren. Lekuko eta eragile. Biek erantzun baitzuten inguruan bizitako eraldaketan aurrean. Eta irtenbideak proposatu zituzten krisian ikusten zuten Euskal Herria eraberritzeko.

Bataren eta bestearen inguruko memoria, ordea, arras desberdina da. Unamuno famatua da oso. Idazle eta intelektual gisa egindako ibilbide oparoak leku iraunkorra bermatu dio espainiar letren historian. Sortzez bilbotarra izanik hiriko seme kutun eta euskal herritar unibertsal ospea eskuratu ditu. Memoria publikoak halaxe aitortzen dio. Berbarako, Bilboren bihotzean, Zazpikaleetan, Unamunoren izeneko plaza apain bat dago, estatutua eta guzti, eta izen bereko Institutu publiko bat Zabalgunean. Bilboko udalak urtero Unamunoren eguna ospatzen du, eta Bidebarrieta udal liburutegiak omen egiten dio izen bereko saiakera sariketarako antolatuz. Izatez, Bilboko alkatearen bulegoan bertan bada Unamunoren buruaren eskultura bat.

Gisa berean, Euskal Herriko Unibertsitateak Miguel de Unamuno izeneko Ikastetxe Nagusia dauka Bilbon, eta Leioako campuseko biblioteca zentrala Unamunoren beste estatua sendo batek zaintzen du. EHUren Gasteizko Letren

Fakultatea zeharkatzen duen kaleari ere Miguel de Unamuno izena jarri zaio, eta campus bereko biblioteca unibertsitarioan Unamunoren izeneko areto bat aurki daiteke. Hori Euskal Herritik irten gabe. Espainian barrena asko baitira Unamunoren izeneko kale, liburutegi eta antzeko espazio publikoak dituzten hiriak (Salamanca, Madril, Sevilla, Zaragoza, Burgos, Santander...).

Azkueren ospea ez da hainbestera iristen. Badu izentxo bat euskaltzaleen artean. Baina ez bereziki Bilbori lotua, ezta Unamunoren adinakoa ere. Aintza publikoan ikus liteke aldea. Bilbon bada Azkueren izeneko kale bat, Santutxu auzoan. Ez da, ordea, bat ere zentrikoa, eta bai malkar eta ziztrin xamarra. Donostian kale zabalagoa eta argiagoa eskaini diote Azkueri. Baina hau ere hiriaren periferian dago, Ibaeta partean. Bilbon egoitza du halaber Azkueren izeneko fundazio batek, euskararen inguruko dibulgazio lanak egiten dituenak, baina osterera ere hiriaren zentrutik urrun, San Inazio auzoan. Ez dago Azkueren izeneko Institutu publikorik Bilbon –ezta Euskal Herri osoan ere–, ez estatuarik, ez urtero ospatzen den egunik, ezta Bilboko udal erakundeek ematen duten Azkue saririk ere. Alkatearen bulegoan ere ez da Azkueren bustorik aurkituko. Eta EHUK ere ez du bere campus eta fakultate ugarietan Azkueren izeneko areto, kale, irudi edo antzekorik.

Erakundeen artean Azkueren memoria zaindu dutenak Euskaltzaindia eta Lekeitioko herria izan dira. Euskaltzaindiak bere literatura sari bati eta bere biblioteca nagusiarik Azkueren izena eman die. Lekeitioko udalak, berriz, kale zentriko bat eta estatua –ez oso eder– bat eskaini dizkio, Azkue jaio zen etxearen aldameneari. Lekeitioko ikastolak ere Azkueren izena hartu du. Baina azkenean Azkue euskaltzaleen munduan geratzen dela dirudi, hirien zentruetatik urrun. Ez balitz bezala euskal herritar guztiek dagokien pertsonaia bat, ezta EHUri edo Bilboko udalari bereziki interesatzen zaiena ere.

Sinboloetatik haratago, ikerketen alorrean, antzeko panorama daukagu. Unamunok irakurle eta jarraitzaile talde ugaria du. Horren erakusgarri *unamunologian* espezializatutako aldizkari bat eta guzti dago Salamancan, urtero dozenaka artikulu argitaratzen dituen (*Cuadernos de la Cátedra Miguel de Unamuno*). Obra zuzenean irakurri nahi duenak, lan konkretuen berrargitalpen desberdinez gain, Unamunoren idazlan guztien edizio on bi ditu. Unamuno pertsona gisa ezagutzeko, berriz, badira zenbait biografia, azken biak bereziki gomendagarriak: Colette Rabaté eta Jean-Claude Rabaté senar-emazteek idatzitako biografia zabal eta dokumentatua (2009), eta Jon Juaristik osatu duena (2012), aurrekoa baino biziagoa eta pertsonalagoa.

Azkueri dagokionez, haren obraren gaineko zenbait azterlan aurki litezke, baita biografia nabarmenen bat ere, Jose Antonio Arana Martijak aspaldi idatzia (1983). Baina erreparatu azken honen argitalpen datari, eta konparatu Unamunoren gaineko azken biografien datarekin. Orrialde kopuruek ere zerbait esaten dute. Arana Martijak Azkueri buruz idatzitako biografiak 110 orrialde ditu (edizio elebiduna da: beraz hizkuntza bakarrera murriztuz gero 55 orrialde lirateke). Unamunori buruz Juaristik idatzitakoak 520 orrialde ditu, eta Rabaté-tarrenak 784 orrialde.

Sintomak dira. Garai berean eta mundu berean jaiotako bi pertsonaiari buruz daukagun ezagutza desberdinaren sintomak. Unamunok zortea izan du eta haren obra eta bizitza ganoraz ikertu dira. Azkueren inguruan, berriz, gutxiago dakigu. Izatez, Azkue aipatzen denean erraz asko azaltzen dira ikuspegi topikoak, zuzenean okerrak ez direnean.

Esandakoaren adibide da, kasurako, Juaristik Unamunoren gainean idatzitako biografiako pasarte bat. Bertan bada atal interesgarri bat, “*La lucha por la vida*” izeneko kapituluan. Atal horretan enpatiaz kontatzen dira Unamuno artean gaztetxoak, Madrilen karrera amaitu berritan, Bilbora itzuli eta bizibidea aurkitzeko izan zituen zailtasunak. Aspalditik zebilen neska batekin, baina ezkondu eta familia bat sortu ahal izateko beharrezko zuen lanpostu bat lortzea. Hola, Unamuno hainbat oposaketara eta lan-deialditara aurkezten ibili zen, bai Bilbon bertan eta bai Espainia osoan, luzaroan arrakastarik lortu gabe. Saio horietako batean Azkuerekin egin zuen topo. Merezi du Juaristiren azalpena luzetxo jasotzeak:

Tenía además [Unamuno] otras experiencias recientes de agravios con recochineo: la del concurso a la cátedra de Vasconce creada por la Diputación de Vizcaya en 1887 en el instituto bilbaíno, al que había concurrido en junio de 1888, en competencia con Sabino Arana Goiri, Resurrección María de Azkue y otros dos candidatos de relleno. La cátedra fue para Azkue, sin discusión alguna. El tribunal ni se molestó en convocar a los demás aspirantes y examinar sus méritos. Le bastaba con que Azkue fuese cura y vascohablante para adjudicarle la plaza a dedo, pero la Diputación necesitaba montar un simulacro de oposición. Sobra decir [lo] que Unamuno pensaba del joven sacerdote lequeitiano [...] alguien que ni había oído la filología, y la situaba [Azkueren gramatika lan bat] incluso por debajo de la de Arturo Campión [...].

En esto, como en tantas otras cosas, Unamuno se equivocaba. Azkue tenía más instinto lingüístico que el fuerista navarro y conocía mucho mejor el idioma, que hablaba desde la cuna. Hijo de un piloto mercante de Lequeitio, que fue además un estimable poeta en eusquera, había estado en contacto desde niño con la literatura escrita en esa lengua, y no

cedía a Unamuno en laboriosidad. Por supuesto no había pasado por Schleicher y era totalmente lego en gramática histórica. Se había formado tanto en el Seminario de Vitoria como en la Universidad de Salamanca, en la gramática normativa clásica, pero como lexicógrafo del eusquera no tuvo igual en su tiempo [...] y fue un excelente recopilador de canciones y cuentos populares. [...]

Se comprende que Unamuno no simpatizase con el personaje. En lo político, Azkue era un reaccionario de una pieza, pero no era esto lo que más podía disgustar a Miguel, que podía tolerar a los reaccionarios muy inteligentes o a los de pueblo, y Azkue, por lo menos, cumplía la segunda condición. Le irritaba, sin embargo, que fuera algo así como el cura oficial de Vizcaya, mimado por la Diputación y por las fuerzas vivas del Ensanche, a las que el lequeitiano hacía la rosca desvergonzadamente [...]. Por supuesto, Unamuno jamás le perdonó que se hubiera prestado a la farsa del concurso, conociendo que la plaza iba a ser para él. Pero, sin duda, era el candidato más adecuado para una cátedra que, según su denominación, debía dedicarse a la enseñanza del eusquera y no de la lingüística vasca.¹

Juaristik aipatzen dituen hainbat datu zuzenak dira. Euskara katedra tarteko Azkueren eta Unamunoren bizitzak gurutzatu egin ziren. Artean hogeita hiru urteko gazteak ziren biak, une hartan bizitza publikoan ia ezezagunak. Nabarmenezkoa da, halaber, katedraren abagune horretan euskal historiako beste pertsonaia aipagarri bat azaldu zela beren bidean, Sabino Arana-Goiri (1865-1903). Hirurak, Azkue, Unamuno eta Arana-Goiri, belaunaldi berekoak ziren, mundu eta garai berean sortuak, eta guztiek izango zuten zeresana hurrengo urteetan. Arana-Goiri alderdi-politikan nabarmenduko zen laster, eta euskal mugimendu nazionalista martxan jarriko zuen. Azkuek eta Unamunok, berriz, letren mundutik egingo zuten beren ekarpena. Alde horretatik esan liteke Azkueren eta Unamunoren soslai publikoek elkarren antza zutela, eta Arana-Goiriren moldetik urruntzen zirela. Letren arloan, ordea, Azkue eta Unamuno gutxitan aurkituko ditugu pareko gisa aipatuta. Normalean oso maila desberdineko letragizon gisa aurkezten zaizkigu. Garaian bertan, goiko pasartean ikus litekeenez, Unamunok ez zuen Azkue bere heineko ikusten. Izatez gutxietsi egiten zuen Azkueren hizkuntzalari gaitasuna.

Juaristi eskuzabalagoa da. Unamuno oker zebilela dio, Azkuek euskara aski ongi zekiela, baliozko lanak egin zituela eta are euskara katedrarako hautagairik egokiena zela. Bere hitzek, ordea, ez dute jatorrizko asimetria hausten. Erreparatu Juaristik bere deskribapenean esandakoari: Azkue euskaldun zaharra zen, lexikografo trebea, folklorista bikaina, behargin fina baina formazio modernorik gabea (Unamunorekin kontrastean), politikoki erreazionarioa, agintarien babespekoa, Bizkaiko apaiz ofiziala, ez biziki azkarra, *“de pueblo”*, eta, merezimenduak merezimendu, euskara katedra tranpa bidez lortu zuena. Eruditu langile

baina probintziano bat funtsean. Boteretsuen gogokoa eta haien aurrean otzana. Izatez, Juaristik aurrerago aipatzen duenez, euskara katedra moduko lanpostuak “*canonjías para celebridades de aldea*” omen ziren.² Juaristiri kasu egitera Azkue urrun legoke Unamuno moduko zinezko intelektual baten mailatik.

Hola osatzen da Azkueren irudi topikoa. Ez da Juaristi izan irudi horren sortzailea. Berak jaso eta errepikatu egin du. Zertxobait hanpatu ere bai. Are datu okerrekin apaindu. Informazio okerra baita Diputazioak katedra Azkueri lehia gabe oparitu ziolakoa. Bestalde, katedra galtzeagatik haserretu bazen ere, ez da egia Unamunok ez zionik Azkueri afera hura sekula barkatu. Eta badira Juaristiren azalpenean beste zenbait kontu aldrebesez ere. Ikusiko ditugu liburuan zehar.

Xehetasunetan sartu aurretik, baina, aipa dezagun berriro Azkue nola azaldu zaigun: lexikografo, folklore-biltzaile, ideologikoki atzerakoi... Hau oso irudi erabilia eta arrakastatsua izan da. Aspaldiko topikoa. Gerraoste ilunetik datorrena. Azkue zaharra eta karlista ospeduna zen garaietatik. Autore abertzaleen artean ere aise aurki litezke antzeko deskribapenak. Agian Juaristirenak baino positiboagoak Azkueren ekarpena baloratzeko orduan. Baina, balorazioak alde batera utzita, mami aldetik ildo berekoak: Azkue eruditu tradizionalista bat genuke, interesgarria antzinako euskal gauzak ezagutzeko baina proiektzio zabalagorik gabea.

Irudi hau, ordea, okerra da. Erro-errotik okerra. Izan ere, Azkue *jakintsu aldeanoa* lehen begiratuan pentsa litekeena baino gertuago zegoen Unamuno *bilbotar kosmopolitagandik*. Datozen orrietan halako kontuak argituko ditugu. Hala, Azkue ezezagun bat agertuko zaigu. Garaiko korrontetean txertatua. Normalean uste dena baino urbanoagoa. Munduari irekiagoa. Bere muga eta gabezia guztiekin, jakina.

Lan honetan, bada, Azkueren bizitza arakatuko dugu. Haurtzaroan hasi eta urtez urte segituko dugu bere ibilbidea, bai arlo pertsonalean eta bai intelektualean. Ibilbide horretan Azkueren pentsaera eta obrak azalduko zaizkigu, eta batzuetan auzi horietan zertxobait sartuko gara (ez ditugu, hala ere, Azkueren ekarpen intelektualak arloz arlo jorratuko: horretaz gehiago jakin gura duenak badu beste lan espezializatu bat).³ Liburu hau, nagusiki, Azkueren bizitzan zentratuko da: gatzetako ikasketak, euskara katedrako urteak, militantzia politikoak, euskararen inguruko proiektuak, Europako bidaiak, euskal hezkuntza lortzeko nekeak, konpositore garaiak, Euskaltzaindiko gorabeherak, Gerra Zibileko urteak... Frankismo garaia laburrago kontatuko dugu. Baina hor ere topiko batzuk desegiten ahaleginduko gara. Liburuan zehar, tarteka, Unamuno ere hizpidera ekarriko dugu, Azkuerekin kontrastatzeko eta bien antz eta aldeak argiago ikus-

teko. Hartara Azkueren irudi errealago bat osatzen ahaleginduko gara. Azkuek merezi duen biografia osatzeko saio gisa. Prest ote gaude ideia kontsokratuetatik haratago joateko?

Bilbo, 2014.

Formazko oharrak

Azkueren biografia hau osatzeko hainbat iturri baliatu ditugu. Iturri zuze-
nen artean garrantzitsuenak bere obrak eta batez ere bere gutuneria izan dira.
Azkueren eskutitzen bi bilduma nagusiak Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan
gordeta daude (Bilbon): batetik bere gutun pertsonalak (ABA-RMA funtsa), eta
bestetik Akademiaren baitatik, euskaltzainburu gisa, ofizialki edo erdi-ofizialki
idatzi eta jaso zituen gutunak (ABA-EUS funtsa). Orotara bost edo sei mila es-
kutitz, gehienak argitaratu gabeak. Bilduma nagusi bi horiez gain, beste gutun
bilduma txikiago batzuk eta bibliografia espezializatua ere arakatu ditugu.

Lanean aparatu kritikoa sartu ez sartu zalantzan ibili gara. Saiakeran ze-
har aipatzen ditugun datu eta informazio guztien iturriak banan-banan oin-ohar
bidez seinalatzea zen aukera bat. Bestea oin-ohar horiek oro kentzea irakurlea
ez gogaitzeko. Azkenean erdibide batera jo dugu: testuan jasotako aipu litera-
lei, kakotx artean agertu ohi diren horiei, beren iturria seinalatu diegu; ez ordea
gure hitzez moldatu ditugun aipuei, ideiei eta datuei. Testu nagusia jarraitzeko ez
dago oin-oharrak irakurri beharrik, baina aipu konkreturen bat konprobatu gura
duenak badu non begiratu. Bestalde, lana osatzeko erabili ditugun erreferen-
tzia bibliografiko orokorrak eta kontsultatutako artxiboen zerrenda liburuaren
amaieran jaso dira.

Euskarazko testuak transkribatzean Azkueren garaian erabiltzen ziren grafia
desberdinak errespetatu ditugu, nahiz normalizatu gabeak izan. Salbuespena *í*, *š*,
l', *t'* eta antzeko letra *pikordunekin* egin dugu: halakoak *rr*, *x*, *ll*, *tt* gisara ematen
ditugu. Alta, arazo ortografiko zehatzen bat agertu nahi izan dugunean jatorrizko
letra *pikordunak* bere hartan transkribatu ditugu. Erdarazko aipuetan ere iturriek
dakarten ortografia mantendu dugu, aldika zertxobait zaharkitua izan arren (sal-
buespen bakarra tilderen batzuekin egin dugu, eta lapsus ortografiko txikiren
batekin, halako hutsak orraztuz).

Azkenik, saiakeran aipatzen diren Euskal Herriko pertsonen deiturak Eus-
kaltzaindiak gomendatzen duen erduan eman ditugu (*Echeverri* edo *Etcheverry*
ordez *Etxeberri* jarrita, adibidez), salbu aipu literalen kasuan (horietan iturriek

dakarten forma mantendu dugu). Izatez, garaian bertan ez zen arraroa euskarazko testuek euskal deituren ortografia molde berrietara ekartzea. Eta ez da aiantzi behar hizkuntza guztietan pertsonaia historikoen izenak konbentzioz ezartzen direla. (Esate baterako, *Napoleon Bonaparte* jeneral ospetsuaren izena, jatorriz, *Napoleone Buonaparte* zen, baina gaur egun inork ez du hala idazten).

I HAURTZAROA LEKEITION (1864-1878)

Azkueren gurasoak: Eusebio eta Karmen

Gure protagonistaren aita, Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia, 1813. urtean jaio zen Lekeition, Napoleon Bonaparteren tropek Iberiar Penintsula utzi zuten urte berean. Eusebiok haurtzaroa Zamudion igaro zuen guraso eta nebarrebeekin. Bere aita Joane Josepe Azkue Zalbidegoitia zamudioztarra zen eta ama Maria Inazia Barrundia Atxabal lekeitiarra. Joane Josepe mediku zirujaua zen, beraz maila bateko pertsona. Ziurrenik horri lotuta bere seme Eusebiok ikasketen bidea hartu zuen. Lehen estudioak Bilboko Kontsuletzeko doako eskoletan egin zituen, eta ondoren hiri bereko San Frantzisko komentuko fraideekin latina eta filosofia ikasi zuen. Fraideen komentua Bizkaiko kultur gune tradizionalista eta euskaltzale nagusietako bat zen garaian. Bertan Inazio Astarloa eta Juan Mateo Zabala frantziskotarrak zeuden, besteak beste. Bilboko frantziskotar hauek euskarazko hainbat obraren argitalpena sustatu zuten: Gabon-kantak, bertsoak, Juan Antonio Mogelen alegiak, Bizenta Mogelen olerkiak... Jose Paulo Ulibarri arabar bilbotartua ere giro horretan mugitu zen. Eusebiok San Frantziskon Jose Antonio Uriarte izan zuen ikaskide, gerora euskal idazle izango zena. Hola bada, datu ziurrik ez badago ere, pentsa daiteke San Frantziskoren komentu honetan erne zitzaiola Eusebiori euskal letretarako zaletasuna: komentuko ikasketa formalak gaztelaniaz eta latinez izan arren erlijiosoek euskarazko argitalpenak ere sustatzen baitzituzten.

1833. urtean, Lehen Gerra Karlista lehertu zen. Eusebiok ikasketak utzi zituen eta Carlos V. erregegaiaren alde lerratu zen. Hola, gerran aritu zen eta denboraz teniente gradua eskuratu zuen. Gerrari akabera eman zion Bergarako akordioa (1839) ez zuen ontzat jo. Euskal Herria utzi eta Ferrolera (Galiziara) zuzendu zen pilotu ikasketak egitera. Pilotu bihurtuta urte pare batez itsasoan ibili zen. 1842an Bilbora bueltatu eta Laureana Ozerin Txorierriko alabarekin ezkondu zen. Hurrengo urteetan nautikako irakasle postua eskuratu zuen, aurre-

nik Bermeoko ikastetxean eta ondoren Mundakakoan. Laureanarekin zazpi ume izan zituen. Horietarik hiruk baino ez zuten lortu urtea gainditzea: Alfontso (1845-1890), Conradok (1853-1870) eta Solek (1855-1937). 1856. urtean Eusebioaren emaztea, Laureana, hil egin zen. Berrogeita hiru urteko senar alarguna eta hiru seme-alaba utzi zituen. Hurrengo urtean Eusebio hogeita bi urteko alargun gazte batekin ezkondu zen Mundakan: Maria Karmen Aberasturi Uribarriekin, gure protagonistaren ama izango zena.

Karmen Aberasturi Mundakan jaio zen 1835. urtean. Bertakoa zuen aita, Manuel Antonio Aberasturi Matategi eta ama Errigoitiko alaba Mikaela Uribarri Ulezaga (“Mikaelatxu” deitzen ziotena), baina Mundakan bizi ziren. Karmen, 1855ean, hogeitazero urte zituela, Tomas Agirrerekin ezkondu zen, baina senarra hurrengo urtean hil zitzaion Kubako Santiagon, umerik izan gabe. Hala bada, alargun biak, Karmen eta Eusebio, 1857an bigarren ezkontzan elkartu ziren. Mundakan bertan alaba bi izan zituzten, Julia (1857-1859) eta Aurora (1860-1937).

Garai hartan Jose Javier Uribarren lekeitiar jatorriko bankari filantropoak diru bat eman zuen bere sorterrian Nautika Eskola sor zedin. Nautika Eskolako irakasle postuetako bat Eusebio Azkueri eskaini zioten. 1861ean, bada, Eusebio, emazte eta seme-alabekin, Lekeitiora lekualdatu zen, bertan kosmografia eta pilotaje katedra betetzeko. Hantxe jaio ziren hurrengo haur guztiak, lehena Jesus Maria (1862-1863), bigarrena Resurreccion Maria (1864-1951), eta ondoren beste lau ume.

Urte horietan, 1860-1861 aldera, idatzi zituen Eusebiok bere olerki gehienak. Poesia haiek ez zituen bizi zela argitaratu, baina adiskideen artean eskuz esku ibili ziren. Laudoriozko hitzekin epaitu zituzten XIX. mendeko euskaltzaleek. Eusebiok harreman ona gorde zuen bere behinolako ikaskide Jose Antonio Uriarte idazle frantziskotarrarekin. Hari igorri zizkion zenbait lan Zarauzko komentura. Eusebio Azkuek, Uriartek bezala, tratua izan zuen Louis-Lucien Bonaparte printzearekin ere (1813-1891), hau da, Napoleon Bonaparte enperadorearen loba euskaltzalearekin. Bonaparte printzearen enkarguz euskaratu zuen, hain zuzen, Eusebio Azkuek *Dies irae* obra.

Eguno literatur kritikariek Eusebio Azkue trantsizioko euskal poetatzat jotzen dute, korrante neoklasikoen eta erromantikoen artekoa, literatura idatziaren eragina eta ahozko bertsolaritza nahastan zituena. Emaizta literarioa ez da beti oso ona, nahiz bere obrek bizitasuna izan. Nortasundun gizona zen Eusebio, katoliko tradizionalista, eskolatua nahiz ez goi mailan, autodidakta, neurri gabea

batzuetan, bizia eta umoretsua. Bere oinordekoek eta bereziki Resurreccion semeak izaera horren hainbat ezaugarri jasoko zituzten.

Azkue jaiotzen ikusi zuen mundua

1864ko abuztuaren 5ean, goizaldeko ordu batak eta laurdenetan, Lekeitioko etxean, hogeita bederatzi urteko Karmen Aberasturi bere laugarren umeaz erditu zen. Ordura arte Eusebiorekin izandako beste hiru haurretatik bi hil egin ziren, eta mutiko jaio berria, zernahi gerta ere, egun berean eraman zuten bataiatzera Lekeitioko Andra Mari parrokiara. Amabitxia Josepa Inazia Azkue izan zen, umearen izekoa aitaren partetik, eta aitabitxia Ramon Aberasturi, amaren neba. Bataioa Juan Miguel Egileor abadeak egin zuen. Umea *Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves* izenaz inskribatu zuten bataio-liburuan. Izenaren bigarren zatia egun hura Elurtzetako Andre Mariarena izatetik zetorren. Nolanahi ere, mutiko jaio berriari etxeokoei *Resurreccion* deituko zioten, edo, herri ahoskeraz esanda, *Resurreccion*.

Azkueren bizi-ibilbidean sartu aurretik une batez gelditu egingo gara 1864. urtean. Izan ere, nekez uler daiteke Azkueren bizitza, bera jaio zen mundua, berak umetan eta gaztetxotan ezagutu zuena nolakoa zen ikusi gabe.

Abiapuntu polit bat Azkue jaio zen egunetako prentsak eskaintzen digu. 1864ko abuztuaren hasierako albisteak irakurriz, Azkueren aitak ia segurki erosten zuen Bilboko *Euscalduna* egunkari tradizionalistan, adibidez, Estatu Batuetako gerra zibilaren berriak ageri ziren. Artean AEB ez zen mundu mailako potentzia nagusia. Aitzitik gatazka odoltsu batek itotzen zuen. Garaian munduko herrialderik boteretsuenak Europan zeuden: Erresuma Batua, Frantzia, Prusia... Esanguratsuki, *Euscalduna* egunkarian Magreben eta Indotxinan zebiltzan europar militarren albisteak aurki zitezkeen. Europar interbentzio inperialisten eta kolonizazioen garaia abian zen. Aurrerabidean, zientzian eta teknologian sinetsiz, europarrek mugarik gabeko hedakuntzan jarria zuten uste osoa. Giro horretan idatzi zituen Jules Verne idazle ospetsuak ere abentura, konkista eta bidaiak nobela ezagunak.

Izan ere, Azkue jaio zen hamarkada hartan, liberalismoa indar betean zebilen Europan, baina bertsio aski moderatua. Behinola bizi izandako iraultza-kontrairaultza antagonismo gatazkatsuen lekuan erdibide eklektikoak nagusitu ziren: liberal-kontserbadoreak, monarkia konstituzionalak, burges nobletuak, noble burgestuak... Politika molde zaharrak eta berriak modurik ezustekoenetan konbinatzen ziren. Eta sistema liberal-kontserbadore horien baitan kapitalismo industrial motore lanetan ari zen.

Europa osoan, bestalde, XIX. mende erdialdean, estatuari lotutako nazionalismoa finkatuz zihoan. Nazionalismoak, jatorrian, subjektu politiko berri eta iraultzaile bat aldarrikatzen zuen: *nazioa*. Hark izan behar zuen bizitza politikoaren protagonista, antolaketa publikoaren iturri, subirano, aginte goren, ordura arte gailen izandako botere eta legitimitate tradizional guztien gainetik (erregea, erlijioa, usadioak, foruak...). Aurreko hamarkadetan, iraultzen une gogorrenetan, legitimitate nazional berria legitimitate zahar guztien aurka borrokan aritu zen, lege tradizionalak abolituz, errege-erregina absolutistek buruak moztuz, eliz erakundeak jazarritz, eta abar. Baina iraultzaren momenturik latzenak igarotakoan, botere tradizionalen eta korrante nazionalista berrien arteko hautumautuak gertatu ziren. Hala, monarkismoa, katolizismoa eta nazionalismoa dosi desberdinetan uztartuz, monarkia zahar gehienetako eliteek beren estatuak eraberritu zituzten.

Hala jalgi zen, adibidez, Napoleon III.a Frantzia. Hauteskundeetako arrakasta eta estatu kolpe bat konbinatuz *Frantsesen Enperadore* titulua eman zion bere buruari (1852-1870). Hitzez frantses nazioa aintzat hartzen zuen. Askatasun zenbait aitortu ere aitortzen zizkion populu horri. Baina botere gehiena bere esku gorde zuen. Modu hartan finkatu zen Napoleon III.aren inperio eklektikoa, elementu aristokratikoak, burgesak, nazionalistak, katolikoak, liberalak zein autoritarioak konbinazio bitxian uztartzen zituen. Beste maila batean, antzera ari zen Isabel II.a, *Jainkoaren eta Konstituzioaren graziaz Espainiako Erregina* (1833-1868), zeinak ildo bereko erregimen eklektiko bat gidatzen zuen, parte txiki batean liberala, parte handi batean oligarkikoa eta kontserbadorea.

Praxi politikoan populuek botere gutxi eskuratu bazuten ere, eremu sinboliko eta kulturean nazio ideiak loraldia bizi zuen. Garaian frantses eta espainiar elite kulturelek obra aberkoiak ekoitzi zituzten: aberriaren historiak, literatur historia nazionalak, nobela eta antzezlan *patriotikoak*... Produktu horiek estatu bakoitzeko merkatu *nazional* sortu berrietan barreiatzen ziren, egunkari, aldizkari eta antzerki konpainia ibiltarien laguntzaz. Estatuak zenbait obra aberkoi diruz lagundu ere egin zituzten eta haien bertsio dibulгатiboak sozializatzeko bideak ere erraztu zituzten hezkuntza sistemaren bidez. Prozesua ez zen kontraesanik gabea, eta mugak ere bazituen. Baina eliteen artean oso nabarmen eta klase ertainetan gero eta gehiago, frantses eta espainiar kultura nazionalak finkatuz eta zabalduz zihoazen. Bidean nazionalismo ofizial hauek identitate tradizionalagoak barnera zitzaketen, edo baztertu, zirkunstantzien eta komenientzien arabera.

Nazionalismo eklektikoen zabalpena Frantzian eta Espainian ez ezik Europa osoan ari zen gertatzen. Piamonteko eta Prusiako erresumek, adibidez, ideal nazional berriak eta interes monarkiko zaharrak uztartuz, ondoz ondotik Italiaren eta Alemaniaren batasun prozesuak gidatzen zituzten. Azkue jaio zen egunetako *Euscalduna* egunkarian, adibidez, Prusiaren hedapenaren albiste batzuk ageri ziren, orobat Garibaldi italiar abertzalearen aipuak.

Garaiko gertaerekin lotuta, Eusebio Azkuek “Pio IX ta Napoleon III” izenburuko bertso-sorta idatzi zuen urte haietan. Izan ere, nazio batasunaren izenean Italiako errege liberalak estatu pontifizioak kendu zizkion Pio IX. aitasantuari. Aitasantuari: Jainkoaren ordezkariari lurlean. Erromako hiria Pio IX.aren eskuetan mantendu zen, baina soilik Napoleon III.aren tropek babesten zutelako. Aitasantua, beraz, lurraldez gabetua eta Napoleon III. enperadore badaezpadakoaren mendean geratu zen. Aitasantuaren egoerak lur jota utzi zituen mundu osoko katoliko tradizionalistak. Gertaera haiek deitoratzen zituen Eusebio Azkuek bere bertsoetan.

Izatez, ezinegon nagusia Pio IX. aitasantuak berak adierazi zuen: mundu garaikidea itzulerarik gabeko ataka gaiztoan sartu zela ondorioztatuta, *Syllabus Errorum* izeneko entziklika argitaratu zuen 1864an. Laurogei erroreren zerrenda bat zen. Bertan arrazionalismoa eta liberalismoa kondenatzen ziren. Eliza katolikoak “aurrerabidearekin” eta “zibilizazio modernoarekin” adiskidetzeko aukera oro errefusatzen zituen. Liberalismo garailearen aurkako kritika tradizionalista zen, ezintasunetik egina. Baina liberalismo garaileak ezker aldetik ere bazituen deskonformeak. Hola, Azkue jaio zen 1864. urte hartantxe, *Syllabus Errorum*aren urte berean, Karl Marxek Langileen Elkarte Internazionala sortu zuen Londresen.

Protestak protesta, gustatu zein ez, liberalismo burgesa, bere bertsio eklektikoan, nagusi zen Europan. Zibilizazio haren fruitu tipikoetako bat, trena, urte haietan ari zen mendebaldeko herrialdeetan zabaltzen. Trenak ederki sinbolizatzen zuen garaiko proiektu liberal-burgesa: aurrerabidearen ideia, hedapen kapitalista, negozio berrien mundua, baita nazio-estatuen eraikuntza ere. Trena, mendebalde osoan bezala, Euskal Herrian ere garai hartan ari zen hedatzen. Prozesua Azkue jaio baino hamar urte lehenago abiatu zen, 1854an, Baiona-Paris lerroa inauguratu zenean. Hurrengo urtean hasi zen eraikitzen Norteko Ferrokarrila, Irun Madrilekin lotuko zuena (1864. urterako jada martxan zegoen). Euskal Herria gero eta gehiago ari zen txertatzen modernitatearen sarean. Frantziako eta Espainiako modernitatearen sarean. Modernitatea zeinu nazional bezala kargaturik

baitzetorren. Eta horrek ondorio nabarmenak zituen hizkuntzan. Halaxe ikusi zuen Élisée Reclus frantses geografo ezagunak 1867ko artikulu ospetsu batean (euskaratuta ematen dugu):

Euskal lurraldean barneratzen den bide handi bakoitzak aldi berean hizkuntzan bertan egiten du zulo bat. Herriak nahasteko agente izanik, merkantzien garraiorako bitarteko izateaz batera, Baionatik Gasteizerako burdinbideak, Bilbotik Mirandarakoak eta Altsasutik Iruñerakoak, eraginik kaltegarriena dute hizkuntzaren garbitasunean, eta laster Aldudeko bideko lokomotorak, Euskal Herriko haranik bazterrenekoetatik igarota, euskararentzat suntsipen-makina are ikaragarriagoak izango dira. Goiz edo berandu, mugaren alde bietako euskal probintziak, zentzu guztietan komunikazio bidez zeharkatuak, atzerritarren jabego izango dira bertakoena adina, eta bertakoek bi hizkuntza jakitera beharturik, hain erabilgarri ez zaien hizkuntza uzten amaituko dute.

[...] Gaur egun euskara frantsesaren eta gaztelaniaren inbasiotik eraginkorren babesten duena herrietan oraindik dirauen ezjakintasuna da. Mendietako goi herri batzuetako biztanleek ez dute kanpoko munduarekiko inolako kezkarik, eta egungo gertaerek ez dute beren bizilekuetan oihartzun ahul bat baizik jasotzen. Ez dute egunkaririk irakurtzen; ez dute libururik irekitzen, ez bada aldika otoitz bildumaren bat edo feria batean erositako almanakeren bat. Ume asko ez doaz lehen hezkuntzako eskolara [...]. Zorionez, jakintzaren hedapena ezin da askorik luzatu espiritu naturalki hain bizi eta hedakorra duen populazio hauen artean. Jarduera liluragarriaren mende honetan, zeinetan “bizitzaren guduak” hondamendira kondenatzen baititu atzean geratzen direnak, euskaldunek, berek ere, ikasiko dute gero eta pauso azkarragoz ibiltzen, baina hau beren nazionalitatearen eta beren hizkuntza propioaren prezioan izango da.¹

Reclusen ondorioa argia zen: modernitatearen eraginpean euskaldunak, herri gisa, desagertzera kondenatuta zeuden. Izenburu hori jarri zion bere artikuluari ere, *Les basques, un peuple qui s'en va*.

Garaian beste hainbat begirale zuhurrek antzeko ondorioak atera zituzten. Panorama erreala, berez, Reclusek irudikatutakoa baino zertxobait konplexuagoa zen. Modernitatearen indarrek –trenbideek, estatuen hezkuntza sistemek, merkatu nazionalak eta antzekoek– zalantzarik gabe, ez zuten euskara eta euskal nortasun tradizionala hauspotzen. Baina baziren euskaldunen asimilazio azkarra urruntzen zuten faktoreak ere. Arlo politikoan foruen auzia zegoen (berehala aipatuko dugu). Arlo sozioekonomikoan, modernitatearen agerpen nagusia, industrializazioa, ia hasi gabe zegoen Euskal Herrian. Trenbide batzuk gorabehera, garaiko zazpi probintzietan biztanle gehien-gehienak lanbide eta bizimodu tradizionalak eusten zieten. Bizkaian, esate baterako, kalkulatu da 1860ko hamarkadan populazioaren hiru laurdenak nekazari edo arrantzale herrietan bizi zirela. Bizimodu nagusiki tradizional horrek betiko ohituren mantenua errazten zuen,

tartean usadio linguistikoena, eta beraz euskararen iraupena. Euskara, gainera, urte haietan eremu aski zabalean mintzatzen zen eta hiztun komunitate nahiko sendoa biltzen zuen. Hizkuntzaren galera, beraz, ez zen Reclusek uste bezain azkar gertatuko.

Azkue jaio zen sasoian Euskal Herriko zazpi probintzietan 900 mila pertsona inguru bizi ziren. Haietatik erdia pasatxo ziren hizkuntzaz euskaldunak. Lurralde batetik bestera proportzioa aldatu egiten zen. Barnealdeko probintzietan, adibidez, euskaldunak gutxiengoa ziren (Arabian %10 inguru, Nafarroan %30 inguru). Atlantiar probintzietan, berriz, euskaldunek gehiengo nabarmena osatzen zuten (Iparraldean %65 inguru, Bizkaian %80 inguru eta Gipuzkoan %95 bat). Edonola ere, probintzia bakoitzeko proportzioan gorabeherak egonagatik euskarak bere eremuan lurralde nahiko trinkoa betetzen zuen: iparhego Donostiatik Iruñe aldera eta mendebalde-ekialde Bilbo ertzetik Zuberoaren akaburaino praktikoki mundu guztia zen hizkuntzaz euskalduna. Eremu hartan nekazariak ez ezik lurralde bereko hiri txiki eta herrietako biztanleak ere euskaraz bizi ohi ziren (eskulangileak, dendariak, arrantzaleak, elizgizonak...). Euskara herri bakoitzeko bizimoduaren parte zen, komunitateko eguneroko harremanen parte. Ezinbesteko tresna komunikaziorako. Ahozkoan, beti ere.

Arlo formaletan, bereziki idatzizko jardueretan, arrazoi historikoak tarteko, erdara ofizialak ziren nagusi, gaztelania Hegoaldean, frantsesa Iparraldean. Bai hiri, bai baserri zein arrantza guneetan. Alta, jarduera formalek eta idatzizko zereginak presentzia urria zuten euskaldunen eguneroko harremanetan. Ondorioz, erdarek ordura arte eragin erlatiboki txikia izan zuten euskararengan. Eragin hori, edonola ere, Reclusek seinlatu bezala, hazten ari zen, eta hurrengo hamarkadetan gehiago haziko zen. Ahoz, bada, euskara indartsu ageri zen, baina esparru formal hazkorrek erdararen presentzia gero eta handiagoa zekarten.

Garai bereko Euskal Herrian, beste lurralde-eremu zabal batean, gaztelania zen eguneroko hizkuntza: Araba ia osoan, Nafarroako hegoaldean, Bizkaiko Enkarterrietan, eta hiriburu nagusietan (Bilbon, Iruñean eta Gasteizen; salbuespena Donostia zen, bertako kaleetan euskara baitzen gailen). Frantsesak, berriz, Baiona aldean zuen indarra. Hiriotan euskaldunak ere baziren, sarritan inguruko herri euskaldunetatik iritsiak. Baina orokorrean gaztelania (edo frantsesa) zen hiri hauetako ohiko hizkuntza. Bestalde, erdara ofiziala estatuko kulturaren parte zen, hau da, garaiko kultura nazional jasoaren eta boterearen hizkuntza. Promozio soziala lortzeko tresna halaber. Hizkuntza ofiziala idazten eta irakurtzen jakiteak estatusa adierazten zuen. Ondorioz, Euskal Herriko erdal eremuetan er-

dara herritar arrunten hizkuntza ez ezik bertako eliteena ere bazen. Alde horretatik erdal komunitatea, bere lurraldean, oso indartsua zen, talde eta funtzio sozial guztiak betetzen baitzituen.

Izatez, erdara ofizialaren prestigio eta boterea hain zen nabaria ezen euskal eremuetan bertan tokiko eliteek ohitura izaten baitzuten gaztelania (edo frantsesa) esparru formalean ez eze beren arteko harreman informalean ere erabiltzeko. Elite horien artean euskara, maiz, talde subalternoekin mintzatzeko hizkuntza bihurtzen zen. Egoera diglosiko horrek euskal eremuko gune urbanoetan erdararen hedapen soziala bultzatzen zuen, klase gorenetan hasita; eta geografikoki, erdal eremuaren ertzeko euskaldun herrietan, hizkuntza-aldaketa errazten zuen. Azken fenomeno honen lekuko zen Nafarroa erdialdea, XIX. mendean euskara galduz joan zena. Hizkuntza-aldaketa mantso-mantso gertatzen zen. Baina etenik gabe.

1863. urtean argitaratu zuen hain justu Louis-Lucien Bonaparte printzeak euskararen eta euskalkien mapa famatua. Hari esker dakigu zein zen euskararen lurralde-hedadura Azkue jaio zen garaian. Bonaparte printzeak, bestalde, euskararen inguruko ikerketekin garaiko euskaltzaleen multzo sakabanatua ardatzu zuen. Kolaboratzaile gisa hartu zituen, besteak beste, Uriarte bizkaitarra, Intxauspe zuberotarra, Duvoisin lapurtarra, Mendigatxa erronkariarra, Etxenike baztandarra, Iturriaga eta Otaegi gipuzkoarrak eta hola beste ehun bat informante euskaldun. Tartean zegoen Eusebio Azkue ere.

Bonaparteren lanekin batera Anton Abadia (1810-1897) zuberotar jatorriko handikiak antolaturiko lore jokoak aipatu behar dira. 1851tik urtero ospatu zituen, lehenik Urruñan eta gero Saran, Euskal Herri osoko –baina nagusiki Iparraldeko– poeta eta bertsolariak erakarriz. Nolanahi ere, Abadiaren lehiaketek oso kutsu herrikoia zuten. Horregatik Abadiaren lehiaketetan loratu zen euskal literatura, apenas igo zen zertxobait herri-bertsolaritzaren mailatik. Soilik Bonapartek lortu zuen bere kolaboratzaileen bidez euskara idatzia maila jasoagora eramatea. Duvoisini enkargatu eta 1865ean Londresen argitaratu zuen *Bible Saindua* itzulpen monumentalak horren lekuko izan zen. Bonapartek sustaturiko lanek, edonola ere, asmo nagusiki eruditua zuten (euskara ikertzea), eta ez zuten izan ia inolako eraginik euskal gizartean. Duvoisinek, Eusebio Azkuek eta beste kolaboratzaileek beren kabuz egindako maila bateko lan gehienak ere eskuizkribu hutsean geratu ziren, argitaratu gabe.

Euskara, aipatu dugu, ia ez zen erabiltzen esparru ofizial idatzietan. Euskaraz argitaratu dotrinak eta debozio liburuak egiten ziren batez ere, edo bertso paperak, bereziki nekazari elebakarrei zuzenduak. Garaiko egunkari eta aldiz-

kariak oro, liberalak zein tradizionalistak, kulturalak zein berriemaileak, erdarazkoak ziren (baita Bilboko *Euscalduna* egunkaria ere, izena gorabehera). Euskal Herriko jende eskolatuak, esan bezala, erdaraz funtzionatzeko ohitura zuen, behintzat arlo idatzian. Horregatik garaian Euskal Herrian publikatu ziren eleberri guztiak, euskal gaien ingurukoak barne, erdaraz atera ziren. Izatez euskal gaidun nobela erromantiko-erregionalistek arrakasta handia zuten Azkue jaio zen garaian. Agosti Xaho zuberotarraren frantsesezko *Aitor, legende cantabre* (1843) izan zen genero honetan aitzindaria. Haren eredu moldatuz gaztelaniazko nobela berriak argitaratu zituzten Jose Maria Goizueta eta Juan Venancio Arakistain gipuzkoarrek, Antonio Trueba bizkaitarrak, Sotero Manteli arabarrak, Francisco Navarro Villoslada nafarrak, eta beste idazle batzuek, denek ere euskal gai historiko-legendarioak jorratuz. Gaztelaniazko obra *baskista* hauek garaiko foru erregimenaren giroan sortu ziren eta testuinguru horretan izan zuten arrakasta. Fenomeno politiko baten alde estetiko-literarioa ziren.

Izan ere, Lehen Gerra Karlistaren akaberatik eta Isabel II.aren agintaldian Hego Euskal Herrian *foralitate berria* deitu zaion erregimena finkatu zen (Iparraldean ez: bertako berezitasun politiko-administratiboak Frantziako Iraultzak deuseztu zituen). *Foralitate berria*, funtsean, XIX. mendeko erdibide eklektikoen euskal bertsio bat zen: foru sistema zaharraren parte bat aldatu egin zen Espainiako konstituziora egokitzeko, baina aldi berean foru erakunde asko mantendu eta are indartu egin ziren. Soluzio hau, iraultza eta tradizio arteko erdibide gisa aurkezten zuten garaiko euskal eliteek. Ez zen erdibide perfektua izan, ezta kontsentsu bidez lortua ere –aitzitik gatazka eta gorabehera artean erdietsi zen– baina eliteen artean nahiko onespen zabala eskuratu zuen.

Foru erregimen berri hark Espainiako probintzia arruntei ez bezalako autonomia politiko-administratiboa ahalbidetzen zien Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoari, baita, beste modu batean, Nafarroari ere. Foru erakundeen kontrola euskal oligarkien esku geratzen zen, baina Batzar Nagusien bidez herritar apa-lagoek hein bateko partehartzea zuten sisteman, eta foru legeei esker biztanle guztiek hainbat abantaila lortzen zituzten (bereziki fiskalak eta soldadutza salbuespenezkoak). Ondorioz foru erregimen berriak legitimitate sozial ohargarria lortu zuen. Hartara, Isabel II.aren agintaldian zehar azken gerrako *karlista vs. liberal* zatiketak lausotuz joan ziren Hego Euskal Herrian. Zatiketa haien lekuan *foruzale* izendapenak hartu zuen indarra, herritar guztiak biltzeko balio zuenak. Ondorioz, foruak tarteko, Hegoaldeko euskal probintzietan espainiar nazionalizazio prozesuak ezohiko ezaugarriak izan zituen. Euskal identitate politiko-

instituzional berezi bat eraikiz joan zen. Identitate berezi hark onartu egiten zuen espainiar marko nazionala, baina haren baitan kokapen berezia eskatzen zuen. Ez zen euskal *nazioa* erreibindikatu, baina bai nolabaiteko euskal *nazionalitatea*, bere foru eta berezitasunekin iraun nahi zuena Espainiaren baitan. Hola bada, euskaldunen berezitasun linguistiko-kulturalaz gain, bazen, Hego Euskal Herrian, foruei lotutako berezitasun politiko-administratibo bat ere. Izatez, identitate biak, kulturala eta politikoa, diskurtso ideologiko askotan uztartu egiten ziren. Artean euskal nazionalismoa, proiektu gisa, formulatu gabe zegoen. Baina hura eraikitzeko elementu kultural, instituzional eta ideologikoak jada airean zebiltzan. Testuinguru horretan sortu zuen Jose Maria Iparragirre (1820-1881) urretxuarrak *Gernikako arbola* kantua, Euskal Herri osoan hedatu zen himno foruzalea.

Bestalde, Hegoaldeko euskal probintzia bakoitzak bere foru propioak bazituen ere, haien artean elkartasun ideologikoa zegoen. Izatez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioetako ordezkariak, aldiro-aldiro, *Irurac bat* izeneko Konferentzietan biltzen ziren. Konferentzia horietan auzi komunak koordinatzen zituzten, bereziki foruen alde Madrilen batera aritzeko. Batzuetan Nafarroako ordezkariak ere elkartzen zitzaizkien. Izan ere, noizean behin tentsioak gertatzen ziren euskal probintzien eta botere zentralaren artean.

1864. urteko ekainean, adibidez, foruen inguruko polemika bizia gertatu zen Madrilen. Manuel Sánchez Silva andaluziar senatariak batetik eta Pedro Egaña gipuzkoarrak bestetik, Espainiako gorteetan astebate baino gehiago luzatu zen eztabaida izan zuten, lehenak euskal foruen aurka, batasun nazionalaren etsai omen zirelako, eta bigarrenek alde, foruak ei zirelako euskal probintziek Espainian egoteko zuten modua. Azkenean Espainiako gobernuak, garaiko joera eklektikoen ilduan, eta botere-oreka delikatuei eutsi nahian, euskal probintzien *statu quo*a ez ukitzea erabaki zuen. Nolanahi ere, polemika ez zen berahala itzali, eta prentsan segitzen zuen oraindik hilabete bi geroago, Azkue jaio zen egunetako *Euscaldunan* ikus zitekeenez. Egunkari berean Antonio Truebaren testu bat aurki zitekeen, literatura kostunbristaren bertuteak laudatzen zituen. Horixe zen Resurreccion Maria Azkue jaiotzen ikusi zuen mundua.

Lekeitio 1864. urte aldera

Azkue Apaltoa kalean jaio zen, eta bertan izan zuen bizilekua haurtzaroan zehar. Apaltoa kalea Lekeitioko erdigune historikoan zegoen. Lekeitio, Bizkaiko

beste hainbat udalerrri bezala –Bilbo, Durango eta Bermeo bezala, adibidez– Erdi Aroan fundatutako hiribildu bat zen, hau da, kalez osatutako gune urbano bat, ez baserri sakabanatuak biltzen zituen herri edo elizate bat. Azkuek, nagusi zela, bere sorlekuari *Lekeitioko uria* deituko zion, edo –gaztelaniazko idazkietan– *villa de Lekeitio* (Bilbori, ofizialki, *villa de Bilbao* esaten zitzaion modu berean). Izan ere ikuspegi historiko-juridikotik Bilbo eta Lekeitio kategoria berekoak ziren, eta kontrajarpena landalurreko elizateei egiten zioten. Praktikan Lekeitio, Bilborekin alderatuta, oso gune urbano txikia zen. 1860ko erroldaren arabera 3 mila biztanle zituen. Konparaziorako, garai bereko Bilbo 18 mila biztanletara iristen zen.

Azkue heldua aise jabetuko zen Lekeitio ez zela *hiri* bat –edo bizkaieraz esanda *uri* bat– Bilbo zen zentzu berean. Horregatik *hiri* edo *uri* hitza, batzuetan, Bilbo, Donostia eta hein horretako gune urbanoentzat gordeko zuen. Edozelan ere, Azkueren ume garaietako Lekeitioaren eta sasoi bereko Bilboren artean ez zegoen geroago egongo zen adinako tarterik: 1860an Bilbok Lekeitiok baino sei aldiz biztanle gehiago zituen; 1900. urtean, Bilboko populazioa Lekeitiokoa baino hogeita hamar aldiz handiagoa zen jada; eta gaur egun ia berrogeita hamar aldiz handiagoa. Esan liteke, beraz, Azkueren haurtzaroko Lekeitio, egiazko hiri bat izan ez arren, kaledun gune koxkor bat zela. Nolabait esan *hiritxo* bat, edo, nahiago bada, *herri handi* bat, Bilbo moduko gune urbanoen eta nekazari herrien erdibidekoa. Lekeitioaren izaera erdiurbano horrek izango zuen eraginik Azkueren mundu-ikuskeran.

Ekonomia arloan arrantza zen Lekeitioko lanbide nagusia, bai eta hari lotutako jarduera osagarriak ere. Udan, bestalde, turista dirudun batzuk azaltzen ziren, bereziki Madril aldetik. Udatiar haietako batek Azkue jaio aurretxoan –1857an– idatzi zuenez, Lekeitioko biztanleak adeitsuak eta beharginak ziren, erlijiosoak orobat: “*Concurren estos vecinos diariamente á la iglesia, especialmente al anochecer al tiempo del rosario; y en los días festivos, después de vísperas, se divierten en familia en la Plaza pública. Juegan pelota los mozos; bailan las mozas al son del tamboril vasco*”.² Herri fededun, lasai eta pintoreskoa bada. Aproposa udatiarrak atsedean hartzeko.

Laster Lekeitiok Espainiako Isabel II. erregina bera erakarri zuen oportetara. Izan ere, Lekeitiok, Lehen Gerra Karlistaren ondoren krisi ekonomiko larria igaro arren, apurka-apurka, herri lurak salduz eta Uribarren mezenas aberatsaren laguntzaz, hainbat obra publiko egin zituen (moila berria, uren ekartzea, hospizioa, nesken eskola, Nautika Eskola...), baita erregina bat hartzeko adinako Uribarren jauregia eraiki ere. Egia esan, artean krisia ez zegoen guztiz gaindituta, eta hain-

bat lekeitiar gaztek Ameriketara emigratzen zuten. Edonola ere, garaiko egoeraren adierazgarri, herriko biztanle kopuruak gorakada xume bat bizi zuen urte haietan.

Lekeitio Hego Euskal Herriko bigarren arrantza portu nagusia zen garaian. Lehentasuna arlo honetan Bermeori zegokion, bai ontzitan bai kontserba industria kopurutan, baina haren ondoren Lekeitio zetorren, Ondarroa, Mutriku, Pasaia edo Hondarribia moduko portuen aurretik. Lekeitio bisigua, legatza, atuna, sardina eta bokarta harrapatzen ziren gehien bat. Horien salmentak, Lehen Gerra Karlistaren amaieratik, goraka joan ziren. Arrain salmentaren erpina 1865. urtean iritsi zen, eta ordutik, astiro baina etengabe, beheranzko joera izan zuen. Azkue jaio zen 1860ko hamarkada hartan, bada, Lekeitioko arrantza sektorea gorenean zegoen. Hala ere, ez ziren marinel guztiak arrantzan enplegatzen. Hainbatek merkataritza ontzietan ematen zuten izena.

Arrantzale ala merkatari-ontzietako marinel izan, argi zegoen itsasgizonen herria zela Lekeitio. Eta horri lotuta sortu zen bertan Uribarren mezenasaren eskutik Nautika Eskola, garairako aski modernoa, Eusebio Azkuek, irakasle gisa, 1861ean bete zuena. Huraxe izan zen Lekeitioko goi-ikasketen gunea. Helburu tekniko-profesional praktikoa zuen batez ere, baina kultur gunea zen edozein kasutan. Gainerakoan, kultura artistikoagoa eliz musikaren inguruan ardatzen zen. Arlo honetan ere Uribarrenen mezenasgoa funtsezkoa izan zen, berak erosi baitzuen Parisko erakusketa batean sarituriko Cavallé-Coll organo famatu bat Lekeitiorako, eta halaber berau jo zezan Juan Maria Blas Altuna durangar musikaria kontratatu zuen (Blas Altuna izan zen 1853an Iparragirrerekin batera *Gerrikako arbola* himnoa lehen aldiz pianoan jo zuen musikaria). Organo haren inguruan ibiltzen ziren kantari, Lekeitiko Andra Mari parrokiari, Eusebio eta Alfontso Azkue aita- semeak. Izan ere, Eusebiok musika formazio bat zeukan, gero seme-alabei transmititu ziena, eta Gabon kanta zenbait konposatu zituen Andra Mari parrokiari kantatzeko.

Azkueren etxeko giroa umetan

Azkuek haurtzaro zorionsua igaro zuela ematen du. Gerora, bere idazkietan, ez zuen berariaz azaldu umetako epealdi hura, ziurrenik ez zelako bere bizipen pribatuak agertu zalea. Hala ere, zenbait aipu sakabanatu elkartzuz lehen urte haietara gertura gaitzke.

Umetako giro kutunarekin erlazioa daiteke Azkueren lehen liburuan, *Euskal-izkindean*, jasotako haur hizkerako berben zerrendatxoa: *aita, ama, aña, apa-apa, apaz, aupa, txatxa, txiz, txitxi, txitxia, kokoko, lolo, ma, mama...* Horiek izan

ziren seguruenik Resurreccionek umetan entzun eta ikasi zituen lehen hitzak, baita apur bat hazitakoan neba-arreba gazteagoekin etxean erabiltzen segitu zirenak ere. Euskal hizkuntzaren lehen esperientzia afektuz beteriko ingurunean jaso zuen Azkuek.

Etxeko harremanen testigantza zuzenagorik ere bada, besteak beste Azkuek umetan amarekin garatu zuen lotura estua erakusten dutenak. Ematen du Karmen oso ama maitekorra zela. Resurreccionek behintzat gomuta gozoak gorde zituen haurtzarotik. Urte asko geroago, 1908an, Azkue Alemanian zela, herrimenez idatziriko poema batean, honakoa zioen:

Aur nintzanean nuen bezela
gabero lotarakoan,
oraiño ere lerre gozotan,
ama det nere gogoan.
Seaskondoan gabero,
ama maiteak oyu [= 'kantu'] egin bezait,
"u-au-atxoa lo ta lo".³

Amarekiko atxikimendu honi bizi osoan eutsi zion, berrogeita lau urterekin idatziriko olerki honetan ikus daitekeenez. Hirurogeita hamar urterekin ere, *Euskalerrriaren jakintza* obran, Azkuek hitzaurre sentitu bat eskaini zion bere ama ordurako zenduari.

Lekeitioko etxean familia ugaria ziren azkuetarrak. Resurreccion jaio zen urtean gurasoez gain beste lau neba-arreba bizi ziren: Alfontso, seme zaharrena, hemeretzi urtekoa, Conrado hamaika urtekoa, Sol bederatzikoa, eta Aurora lau urtekoa. Lehen hirurak Eusebioren lehen ezkontzakoak ziren, Laureana Ozerinen seme-alabak. Hura zendu zenetik umerik txikienak behintzat Karmen emazte gazteak zaindu bide zituen, bereak propio ziren Aurora, Resurreccion eta ondoren etorriko ziren haurrak bezala. Ama desberdinak izanagatik, ez dirudi azkuetar neba-arreben artean bereizkeriarik zegoenik. Resurreccionek behintzat, helduaroko gutunetan, berdin tratatzen zituen arrebak, arreberdiak zein anaierdiak, guztiei ere *arreba* edo *anaia* izena emanaz. Karmen Aberasturik ere guztiak seme-alaba propio bezala hazi zituela ematen du. Etxekoen taldea amaitzeko badi irudi neskameren bat ere izan zutela.

Etxeko harreman hauen alboan ezin ahaztu alde ilunagoak, garaiko hilkortasun tasa altuei lotuak. Azkuek hiru urte zituela, 1867an, Mari Luz arreba jaio zen, urte berean hil zena. Hurrengo urtean, Diana arreba jaio zen, luze bizirautea lortu zuena (1868-1934), eta urte bi geroago, 1870ean, Heliodoro anaia, zorte gutxiagokoa. Urte horretan, Resurreccionek sei urte zituela, Conrado bere

anaierdia, hamazazpi urtekoa, La Habanan marinel zebilela hil zen. Eta 1872an, Resurreccionek zortzi urte zituela, urte bi eskaseko Heliodorok ere bizia galdu zuen. Julia izan zen Karmenek eta Eusebiok izan zuten azken umea, 1873. urtean, baina hau ere zendu egin zen hurrengo urtean.

Hola, azkuetarren familian ugariak baziren jaiotzak ez ziren urriagoak heriotzak: hamar urte bete orduko, Azkuek lau neba-arreba galdu zituen, horietako hiru behintzat berak kontzientzia zuen adinean. Nolanahi ere, ez dut Azkueren testuetan gertaera haien erreferentziarik aurkitu, agian gurago izan zituelako ahantzi. Edonola delarik, Azkueren etxean, umeen alaitasuna eta heriotzen samina, biak, bizi izan zituzten. Izatez, Resurreccion sortu aurretik ere bere ama hiru umez erditu zen eta horietarik bi hil ziren. Eta aitak aurreko emaztearekin izandako zazpi umeetatik lau, urtea egiteke zendu ziren.

Honelako heriotzak nahiko ohikoak ziren garaiko etxe guztietan. Eta ez soilik umeen artean. Azkuek mutikotan herrian ikusitako gaixotasun kutsakorren gomuta luzaro gorde zuen (nafarreriarrena, tifusarena, etab.), bai eta haien gainditu arren markatuta geratu ziren “aurpegi zulatudun gizonena” ere.⁴ Seguruenik orduko fede sakonak eta eroapen kristauak aurrera egiten laguntzen zien.

Azkueren aita bera, Eusebio, 1873ko azaroan hil zen, hirurogei urterekin. Perlesi gaixotasunak hil zuen. Hola, bederatzi urteko Resurreccion, eta bizirik iraun zuten beste lau seme-alaba aita gabe geratu ziren. Eta alargun hogeita hamazortzi urteko Karmen ama, bost umeren kargura.

Resurreccionek, bada, oso gazterik galdu zuen aita. Dударik gabe hutsune horrek marka sakona utzi zion nortasunean. Gerora, heldua zela, Azkuek hainbat obra eta proiektutan umezurtzekiko sentiberatasun berezia agertu zuen, seguru asko berak ere bere burua erdi-umezurtz sentitu zuelako. Umetan aita ezagutzeko astia izan arren ez zuen betarik izan harekin harreman heldurik garatzeko. Eta horrexen falta geratu zitzaion. Berrogei urterekin ere, Frantzian egin zuen egonaldi batean, poz handia eragin zion etxekoek aitaren erretratua bidaltzeak, eta bere logelako mahai gainean jarri zuen. “Aitagaz lenago baiño askozaz sarriago gomuta naz, beti begien aurrean liburu-ganetxoan daukadan ezker” idatzi zien.⁵ Azkuerentzat, aita, afektiboki galdu zuen gurasoa ez ezik, intelektualki ere erreferente garrantzitsu izan zen. Eusebiok, bizi zen arte, musikarako zaletasuna zabaldu zuen etxean, bai eta euskal letrak lantzeko eredia eskaini ere. Ez da kasualitatea Resurreccionek bizi osoan landu zituen zaletasun nagusiak bi horietatik izatea: musika eta euskal letrak. Egia esan, aitaren heriotza unean Resurreccionek soilik bederatzi urte zituela kontuan izanda, ez dirudi Eusebiok semeari bere

zaletasunak irakasteko asti larregi izan zuenik, bereziki euskal letrei zegokionez. Musika arloan aukera gehiago izan zezakeen, kantuan txikitatik irakatsi baitzien seme-alabei. Resurreccionek, lau hamarkada geroago ere, aitagandik ikasitako doinuak ondo oroitzen zituen (bere kantutegian jaso zituen batzuk). Musikan ez bezala, letra arloan, Eusebiok bere seme gazteari nekezago irakatsi ahal izan zion euskaraz idazten. Baina Resurreccionek, seguruenik, gogoan atxiki zuen haurtzaroan aitari ikusitako euskal poesiarako eta izkribuetarako zaletasuna. Eta, agian, aita ezin izan ziona zuzenean irakatsi, semeak bere kabuz berreskuratu nahi izan zuen geroago, beharbada gaztaroan, aitaren poesiak irakurriz eta haren bidea berdindu guran.

Aitaren hutsuneak, eta beste neba-arreben heriotzak Azkueren haurtzaro, bestela goxoa, markatu bazuten ere, ez du ematen Resurreccionen ume garaiko balantze orokorra tristea izan zenik. Azkuek berak, urte asko geroago idatziriko ohar bakanetan, aita hil osteko haurtzaro alditik oroitzapen nahiko xamurrak berreskuratzen zituen: *“Recuerdo que, siendo yo muchacho, teníamos en casa, jilgueros, pardillos... etc., herencia del padre, y cómo de vez en cuando les poníamos entre las rejas de la jaula cardo, flor de lechuga... etc que por cierto acogían con gran satisfacción, sin duda por salir de su eterno mijo”*.⁶

Aita galdu arren etxekoek aurrera egin zuten. Eusebiok, txoriez gain, beste-lako ondasunak ere utzi bide zizkien, besteak beste Lekeitioko etxea. Afektiboki amak eta Alfontso anaia nagusiak (hemeretzi urte zaharragoa Resurreccion baino) mantenduko zuten familia ziurrenik. Amagandik, maitasunaz eta zaintzaz gain, hainbat herri tradizio, esaera, ipuin eta jolas ere jaso zituen. Aita erreferente intelektuala baldin bazen, amak herri kulturarekiko lotura zuzena eman zion. Halaxe aitortuko zuen behin baino gehiagotan.

Alfontso anaiari buruz ez dago datu handirik. Mutilzaharra zen eta etxean *Alfontso* edo *Alpontso* deitzen zioten. Adin tarteagatik Resurreccionen aita izan zitekeen, eta zenbait ikasketa, adibidez musika arlokoak berarekin egin zituen. Familiaren oinarri ekonomikoa ere Alfontso zen ziurrenik, Nautika Eskolan irakasle baitzen. Azkuek gutun batean aipatzen zuenez, Alfontso izaeraz sana, alaia eta umoretsua zen oso ezagunekin, aldiz laburra gainerakoekin.

Resurreccionek arrebeekin umetan izandako harremanaz ez dago aparte-ko albisterik. Pentsa litekeen ona zela, gerora behintzat oso lotura estua izan baitzuen haiekin. Beste lekeitiar batek, Eusebio Erkiagak, urte asko geroago honako deskribapen fisikoa eman zuen azkue tar neba-arrebez: “Sol txiki samarra ta baltzerana zan, lenengo emaztearena. Azkue abadea eta Aurora ta Diana,

luzeak eta galantak, azal zurikoak”.⁷ Oro har badirudi familia elkartua zirela. Izeko-osabekin, aitita-amamekin eta lehengusu-lehengusinekin ere tratu ona zuten. Ramon Aberasturi bere aitabitxi eta osaba marinelarekin, adibidez, Resurreccionek kabotaia bidaia bat egin zuen hamabi urterekin Cartagena, Lisboa eta Liverpoolera.

Azkueren herriko bizipenak

Arrantzale herria zen Lekeitio esan bezala. Herri euskaldun eta kristaua, egunero mezatarra joaten zena. Baina itsasotik munduari irekia orobat. Badirudi Azkuek bere burua zortekotzat zuela Lekeitio sortu eta hazi izanagatik. Urte asko geroago, Txomin Agirrerri buruz ari zela, honakoa idatzi zuen: “Neri bezela, ari ere Yainkoa’k itsasondoan arkaitz-gainean atondu zion seaska. Aurzarotik asita uginen (olatuen) burrundara indargarriak durundi egiten zigun belarrietan eta gure biririkak itsasaize mardul txistulariak gogortu zituen”.⁸ Topiko bat izan liteke, baina, adierazpen horiei kasu eginez gero, itsasaldeak Azkueren gogo-gorputzean marka sendoa utzi zutela esan beharko genuke.

Aisialdian Azkue txikia herriko umeekin jolasten zen, gehienak arrantza-leen seme-alabak. Gerora kontatuko zuenez, “Txikitan, mutilkoak yolastean ari ginanean (kañiketara, parratean naiz yokoren batean), eskutik zerbait yaurtikitzean, ‘arimak’ esaten genuan, Purgatoriotik berak lagun egin zekiguten”.⁹ Erlijioa, ikusten denez, bizi-bizi zegoen umeen jolasetan bertan. Eta sinesmenekin loturan esperientzia harrigarriak ere ez ziren falta:

he de citar una frase que siendo yo niño de unos diez años repetí con otros tres mozalbetes en un episodio de magia; así, tal como suena, de magia. Por supuesto, que no teníamos idea alguna ni siquiera de la existencia de estos fenómenos, aunque estábamos ya hartos de oír hablar de brujerías. El lugar de la escena fué, al anochecer de un día de fiesta, la playa de la villa en que tuve mi cuna. Un compañero nos dijo que si un muchacho se tendía en el suelo y cuatro a su derredor repetían alternativamente tres formulas especiales, teniendo cada uno el dedo índice bajo el cuerpo del tendido, éste, sin más esfuerzo nuestro, empezaría a remontarse en su misma horizontal postura. Las formulas [...] fueron tres, que cito a continuación: [...] *au gizon au ilda dago –arria legez dago– doiala tximiniñan gora*. Y el supuesto muerto se remontó, en efecto, a una altura como de un metro, sin otro apoyo que el de cuatro dedos índices.¹⁰

Halako gomutak bizi osoan atxiki zituen Azkuek, magiazko harridura haiek bezala egiazko ikarak, zahartzaroan Federiko Krutwigi adierazi zion hura adibidez: “bere humezaroan bertze dezangadaren [erorketa baten] bidez hiltzear egonik zan. Bere herriko lagunak baino gutiago ez izaitarren, uretara iauntzi zan, bainan arrain-

tzaleen semeek bezain ongi igeritan ezpaitzekian, busti ta ikaratu athera zuten eta etxerat eramán. Etxeratuaz geroz bethi orhoitzen zan orduan hartu astinaldiaz”.¹¹

Azkue txikia arrantzale umeen laguna zen, eta haiekin jolasten zen. Baina Azkue ez zen arrantzale-semea. Ez zekien haiek bezain ondo igerian. Seguruenik Lekeitioko haurren artean klase bereizketak nahiko lausoak ziren. Bereizketak, ordea, izan baziren. Eta Azkue, azkenean, Nautika Eskolako irakaslearen semea zen. Lekeitioko burges txikitxo bat.

Nautikako irakaslearen semeak, edonola ere, herriko beste umeekin batera igerian ikasi zuen. Azkuek berak, bere haurtzaroko bizipenetan oinarritua dirudien anekdota batean, txeraz kontatzen zuen bere sorterriko mutikoen oporraldia nola zegoen urari lotuta:

Udaro agertzen dira, Lekeitioko urian, Urberoagatiko arrotz larru-beltzeranak; Eliza ikus-tera joaten dira lenengo, andik kaira. Urrutitik berak ikusita, mutikoak alkarri deadarrez asten dira: “txo, kanpotarrak”. Berealaxe biloizturik, jauzi ta zapart egiten dute uretara igelak legorretik beren idoira bezela. “*Echa diñero. Lekos. Echa diñero*”, luzaro ari izaten dira esaten. Batzuetan egozten diete dirua, beste batzuetan ez. Bein ayetako arrotz batek, lurrean doi-doi ageri zan mutiko bati, maiterik erderaz galde egin zion: “Aur ¿ik ere igeri dakik e? –Bai, Kauna. –¿Nun ikasi dek orren gazterik igeri egiten, nun? –Uretan, Kauna”.¹²

Urberoagako balnearioan oporrak igarotzen zituzten arrotzek legez Azkuek ere gustua gorde zien Lekeitioko elizari, kaiari eta inguruetako parajeei. 1927an Euskal Herrira etorritako aleman bisitari bati, adibidez, gogo biziz erakutsi nahi izan zion bere jaioterria, batera eta bestera eramanez. Bisitariak idatziriko kronikatxoan hola azaldu zuen Azkuek gidaturiko txangoa:

Debíamos visitar primero la antigua, bella y oscura Iglesia parroquial donde él [Azkue] fue bautizado, celebró su primera misa y predicó su primer sermón y donde al pórtico vino a saludarle su hermana mayor con un cariño y sencillez como en muy pocas otras partes es posible notar. Nos llevó a la playa donde jugó él tanto en su niñez; luego al muelle donde las olas saltaban aquella tarde la altura de una casa. Debimos también entrar a visitar a un viejo amigo suyo, dignísimo decano de la parroquia. Cayole después muy en gracia a nuestro amigo vasco que precisamente de su villa natal llevásemos en forma de postales ilustradas unos recuerdos a nuestra Patria.¹³

Azkue, ikusten denez, Lekeitiori oso lotuta zegoen afektiboki. Bere sorlekua zen, bataiatu zuten herria, txikitán hainbeste jolastu zen hondartza zegoen lekua, eta umetan beste mutikoekin batera, kaniketan, magia jolasetan, igerian (ikaraldiren bat falta gabe), jauzika eta kanpotarrei txanpon eske olgetan ibili zen itsasaldea. Zahartzaro aldean jasotako lekukotasun hauek behintzat Azkuek haurtzaro nahiko gozoa igaro zuela iradokitzen dute. Edo behintzat hala oroi-

tzen zuela. Izan ere, goiko pasartean aipatzen den bezala, Azkuek harremanetan segitu zuen bizi osoan Lekeitioekin: bertan ospatuko zituen bere lehen meza eta sermoia, eta etorkizunean Bilbon kokatu arren udaro itzuliko zen jaioterrira oporrak igarotzera.

Haurtzaro aldiarekin loturan beste toki batzuk ere aipagarriak dira. Pentsa liteke Lekeitio inguruko herriak, hala nola amaren sorteri eta aitita-amamen bizileku zen Mundaka maiz bisitatuko zituela. Iturri zehatzik aurkitu ez dudan arren Lea eskualdeko beste hainbat herritan ere ibiliko zen. Seguruenera, aldi-ka, Bilbora ere joango zen. Dena dela, Azkueren geografia ez zen Bizkaira mugatzen. Izan ere, Lekeitioko portuak aparteko irekitasuna ematen zion herriari. Herriko marinela eta itsasontziak mundu zabalean zebiltzan, hainbat Txinako merkataritzan, Europan zehar edo Amerikarekin elkartrukean. Azkueren amaren lehen senarra bera, Kubako Santiagon hil zen (1856an), eta Azkuek hein batez ezagutu zuen Conrado anaiardiak La Habanan galdu zuen bizia (1870). Aitari zegokionez, gaztetan hainbat itsas ibilera egina izateaz gain, Resurreccion mutiko zenean kosmografia irakasten zuen Nautika Eskolan, eta gerora Alfontso anaiak hartu zuen irakasle postu hura. Hola bada, mundua erreferentzia aski hurbila zen azkuetarren familian. Lekeitiotik mundura joan ez ezik bertara ere etortzen ziren kanpoko udatiarrak, jada aipatu denez. Lekeitio ez zen inondik herri isolatu bat. Aurrekari horiek Resurreccionez gerora agertu zuen bidaiarako zaletasuna erraztu zuten apika.

Azkuek ikasketak herriko eskolan hasi zituen, ziurrenik sei urterekin, adin horretan hasten baitzen derrigorrezko eskolaldia. Garaian umeek ikasten zituzten gai nagusiak erlijio katolikoa, irakurketa-idazketa eta aritmetika ziren. Irakurketa-idazketarekin batera gaztelania ere eskolan ikasi ohi zuten, gaztelania baitzen maisuen ohiko lan-hizkuntza. Baliteke eskolan jasotako erlijio ikasgai euskarazko irakurketa zerbait ere lantzea, garaian Euskal Herriko maisu batzuek erlijioa euskaraz irakasten baitzuten. Izatez herriko apaizek ere parte hartu ohi zuten erlijioaren irakaskuntzan, maisuaren lana osatuz eta ikuskatuz, eta sarritan euskarazko dotrina libururen bat erabiltzen zuten. Edonola ere, euskara, Lekeitio eskolan erabiltzen baldin baten (seguru ez dakiguna), ikasgai bakar horretara mugatuko zen. Alde horretatik euskara idatzia irakurgai soil gisa erabil zitekeen, kristau dotrina buruz ikasten laguntzeko, ez gehiagorako. Gaztelania, berriz, orduko eskoletan, erlijio testuetan zein bestelakoetan landu zitekeen, irakurkete-tan zein idazlanetan, eta programa ofizialak berariaz agintzen zuen gaztelaniazko gramatika eta ortografia jorratzea. Eskolaldia beti ez zen aski izaten ume euskal-

dunek gaztelania ondo ikasteko, eta asko erdara gutxi jakinda ateratzen ziren. Edonola ere, irakurtzen eta idazten ikasten zuenak, asko edo gutxi, batez ere gaztelaniaz egiten ikasten zuen.

Gaztelania eskolan ikasteaz gain, Azkuek udatiar bisitariei ere entzuten zien, orobat Lekeitio bizi ziren handiki batzuei. Mario Adan de Iartza bilbotar jaun-
txoak, Lekeitio bizi zenak, adibidez, foruzale bizia izanik ere, argi adierazi zuen bere hizkuntza praktika: “Yo entiendo el vascuence de aquí [Lekeitiokoa] bastante bien, pero tengo mucha dificultad para hablarlo”.¹⁴ Kale eta eskolatik kanpo, Azkuek elizan ere entzungo zuen aldika gaztelania. Urte asko geroago idatzitako ohar –ia seguru autobiografiko– honetan hala adierazi zuen:

Bizkaiko Eliza eder baten amarretako Mezatan egozan mutiltxu bi, aoa zabalik erdaldun sermolari bati entzuten. Batak erderaz ezekian berrogei berbatik gora; besteak asko asko ez baina zelan edo alan adituteko beste baekian. Sermolariak sutsuen da gogotsuen iarduala, batak besteari itandu eutsan: “Txo ¿zer da *sin embargo*?”. Beste mutiltxuak berentzako iakinarren, inori esateko ezekian.¹⁵

Badira zantzuak pentsatzeko bi mutikoetatik gaztelania gehien zekiena Azkue bera zela. Hala izatera, anekdotak erakutsiko luke Azkue txikiak nahiko goiz ikasi zuela gaztelania, ulertzeko adina behintzat, baina euskaraz hobeto moldatzen zela.

Derrigorrezko eskolaldia bederatzi urterekin amaitzen bazen ere, Azkuek ikasten jarraitzeko aukera izan zuen. Hola, 1873an, humanitate ikasketak hasi zituen Inazio Goxeaskoetxea markinar abadearekin. Lehen bi hilabeteetan aitak laguntzen zion, bai eta aukera eman ere Raimundo de Miguel-en latin testu-liburua etxera eramateko. Aita, ordea, berehala zendu zen, eta Resurreccioneak aitaren laguntzarik gabe segitu zuen ikasketekin. Nolanahi ere, ikasketa hauen erdian gerra lehertu zen.

Bigarren Gerra Karlista

1872. urtean hasi zen Bigarren Gerra Karlista. Haren ondorioak laster Lekeitiora ere iritsi ziren. Aurreko urteetan ezegonkortasun politiko larria ibili zen espainiar estatuan. Kolpe militar batek, 1868an, Isabel II.a destronatu zuen eta ondoren erregimen liberal berri bat ezarri zen, aurrekoa baino laikoagoa. Aldaketak ez ziren gizarteko sektore katoliko eta tradizionalisten gustukoak izan.

Euskal Herrian foralitate berriaren inguruan aurreko hamarkadetan lortutako adostasuna hausten hasi zen. Liberal/karlista zatiketa zaharrak berpiztuz joan ziren. Karlistek hasieran legalitate barruan jokatu zuten, hauteskundeetan

parte hartuz, baina urte batzuen ondoren armataraz jotzea erabaki zuten. Aukera, itxuraz, aproposa zen. Espainiako erregimen liberal berriak ez zuten finkatzea lortzen. Madrilgo tronora errege berri bat eraman zuten agintari liberalek, Amadeo Saboiakoa, baina Espainian zeuden arazo larrien aurrean herrialdea gobernaezintzat jo eta abdikatu egin zuen 1873an. Orduan, errepublika ezarri zen, baina gogo handirik gabe. Karlistei garaipena inoiz baino hurbilago zegoela begitandu zitzaizkien: beren ustea zen armen bidez estatua konkistatuko zutela, tronuan beren erregegaia ezarri eta eredu tradizionalerako erregimen bat finkatuko zutela, sendoa, katolikoa, behar zen bezalakoa. Izatez karlisten altxamenduak arrakasta izan zuen Hego Euskal Herrian. Hiriburuak eta eskualde gutxi batzuk kenduta Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako lurralde gehienaren kontrola lortu zuten. Karlismoak euskal herritar gehienaren sostengua ere bereganatu zuen. Ebroz hegoaldera, ordea, karlistek apenas kontrolatzen zuten lurralderik. Hola karlistak eta liberalek, bakoitza bere posizioan, ez aurre eta ez atze ibili ziren zenbait urtez, gerran.

Lekeitio, euskal kostaldeko beste herri asko bezala, 1873. urtean geratu zen karlisten eskutan. Uste izatekoa da azkuetarren etxean poztu egin zirela agintek aldaketarekin. Azkenean *Jaungoikoa eta foruak* antzinako erara defendatuko zituen erregimena zetorren. Artean Eusebio Azkue bizirik zegoen (nahiz urtea amaitu aurretik zendu zen). Aurreko gerran Carlos V.aren alde borrokan ibili zen, eta, gatazka hura karlistentzat porrotean amaitu bazen, oraingoan errege haren ilobak, Carlos VII.ak, aukera zeukan garaipena lortzeko. Izatez, halako batean, Lekeitio bertan agertu zen karlisten erregea. Ordurako Eusebio hila zen. Herritarrek poz artean ospatu zuten errege flamantearen etorrera. Azkuek horren inguruko anekdota xeble bat ere jaso zuen hainbat hamarkada geroago:

Lekeitio 1874-garren urtean Carlos de Borbón y Austria Este, lenengoz agertu zuen egun, bera ikusi ta yarraian atsotxo bat ilarrietara (kanposantura) yoan zuen, an zetzan bere adiskide bati barri pozgarria yakin arazotera. [...]. Bere obira eldu zanean, oiñaz bea yota esan eutsan: “Mari Antoña Keletonena: Don Karlos etorri dona. ¡¡Gizon onen ederra!!”¹⁶

Zenbait hilabetez Lekeitio ingurua nahiko baketsu egon zen karlisten agintean. Portura, aldika-aldika, itsasontziak heltzen ziren karlistentzat armak ekartzera. Gerra, ordea, ez zen txantxetakoa. 1874ko ekainean armada liberaleko gerraontziek Lekeitio kanoikatu zuten. Hurrengo urteko erasoak gogorragoak izan ziren. Espainian errepublika erori eta liberal kontserbadorek hartu zuten boterea. 1875eko uztail eta abuztu bitartean liberalen gerraontziek gau eta egun bonbardatu zuten euskal kostaldea. Lekeitiora bakarrik, hiru eguneko bonbar-

daketa saioan, berrehun granada baino gehiago erori ziren. Kanoikadek ez zuten aldi hartan hildakorik eragin, baina hainbat etxe apurtu eta herrian sute ugari piztu zituzten. Uribarren jauregia, adibidez, birrinduta geratu zen, eta granadek jota udala, eliza, dominiken komentua eta beste zenbait eraikin. Karlistek Lekeitioko muinoetan kokatutako kanoi txikiekin erantzuten zieten liberalen ontziei, baina arrakasta handirik gabe.

Garai honetan azkuekarrek harremana izan zuten Lekeitio zebiltzan soldadu karlistekin. Izatez etxean ostatu eman zioten Felix Ortiz de San Pelayo (1856-1941) izeneko azpeitiar artillero gaztetxo bati.

Yo, chiquilín entonces –idatzi zion Azkuek Ortiz de San Pelayori urte asko geroago– no recuerdo del artillero de nuestra casa sino que era á mis ojos rechoncho, tocaba el harmonium, y montaba como un gaucho, pues aún parece que le tengo presente cuando subía á caballo, echando chispas, el montecito en que tenía V. sus dos cañoncitos, un día que ya la fragata Consuelo empezó á bombardear.¹⁷

Gertaera hauek jazo zirenean Azkuek hamaika urte zituen. Resurreccionek artillero hark emandako gozokiak ere oroituko zituen (*“Nada recuerdo de su fisionomía cuando usted estuvo en Lekeitio. Rapazuelo como era, más me habré fijado en la mano que en la cara que me daba caramelos”*).¹⁸ Ortiz de San Pelayo, gerraren ondoren, Argentinara joan zen eta bertako euskal kolonian nabarmendu zen.

1876ko otsailean amaitu zen gerra, karlisten porrot erabatekoarekin. Hego Euskal Herria armada liberalaren kontrolpean geratu zen. Baina lau urteko gerra gogorra behar izan zen garaipena lortzeko. Garaipen neketsu hark espainiar iritzi publikoa sutu egin zuen. Madrilen, Santanderren eta beste toki askotan euskal probintzia matxinoak zigortzeko eskariak ugaltu ziren. Testuinguru horretan Espainiako gorteek, 1876ko uztailaren 21ean, foru erregimenaren akabera ekarri zuen legea onartu zuten. Izan ziren protesta batzuk, ez ordea gehiegi, Hego Euskal Herria Espainiako gobernuaren armadak hartuta baitzuen eta garantia konstituzionalak etenda baitzeuden.

Bitartean Azkue mutikoak ikasketekin segitzen zuen. Urte hartako uda igarota Nautika Eskolan sartzeko azterketa gainditu zuen. Nautika Eskola bigarren hezkuntzako zentro bat zen, baina marinel izan gura zutenei zuzendua. Bertan izan zen irakasle aita, eta han ari zen Alfontso anaia. Ikasturte bi egin zituen Resurreccionek ikastetxe honetan, 1876-1877an eta 1877-1878an. Lehen ikasturtean hiru ikasgai jaso zituen: Aritmetika-Algebra (*sobresalienterekin* gainditu zuen), Geografia 1 (*sobresaliente*) eta Marrazketa Lineala (*aprobado*). Bigarrean

beste horrenbeste: Geometria eta Trigonometria (*notable*), Geografia 2 (*sobresaliente*) eta Marrazketa Geografikoa (*aprobado*). Emaitzetan ikusten denez guztia gainditu zuen, eta baita zenbait nota on atera ere, nahiz ez guztiak. Edozein kasutan antza ez zion aski gusturik atera itsas bideari. Izan ere, hurrengo urtean, nautika ikasketekin segitu ordez, Bilbora lekualdatu zen, Bizkaiko Institutu Probintzialera. Gorago aipatu denez, jada 1876an egina zuen itsas bidaia bat Cartagena, Lisboa eta Liverpooletaraino bere osaba batekin, baina bidean harrapatu zuten ekaitzak marinel izateko zaletasuna kendu ei zion. Argudio hori aipatu izan da inoiz Azkueren itsas zaletasun eza arrazoitzeko. Baina egia esan hor arazotxo bat dago: 1876rako Azkuek argi ikusi bazuen ez zuela marinel bizitza maite, nolatan egin zituen ondoren urte bi gehiago Nautika Eskolan, zuzenean Institutu Probintzialera joan beharrean? Baliteke, nahiz frogarik ez izan, etxekoek ez izatea 1876an aski dirurik Resurreccion Bilbora bidaltzeko (eta gero bai). Edo agian Bilbora igorri aurretik Lekeition egiaztatu nahi izan zuten Azkue gaztetxoaren ikasle gaitasuna, ondoren erabakitzeko Institutu Probintzialera bidaltzeak merezi ote zuen.

Kontua da, 1878-79 ikasturtean, Alfontso anaiaren diru-laguntzari esker, posible izan zuela hamalau urteko Resurreccionez Bilborako bidea hartzea. Atzean utziko zuen Lekeitioko haurtzaroa, bere senide, adiskide eta herriko giro guztiarekin. Bilbora abiatuko zen, hiri handiago batera, gaztaro osoan zehar luzatuko zen ikastaldiari hasiera ematera.